



**2001EKO ABENDUAREN 27KO**  
**OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bateko abenduaren hogeita zazpian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Igor Sarriegi Zumarraga, Inazio Estenso-ro Eskisabel, Gorka Lamy Intsausti, Arantxa Zumelaga Agirre, Urko Irastortza Aldanondo eta Joseba Hernandez Madinabeitia.

Irantzu Amundarain Irizar, Jon Agirre Garmendia, Jose Antonio Dopazo Martin eta Jose Luis Otamendi Romero zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2001eko azaroaren 29an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- ALKATETZAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.-**

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpe-nen berri emten du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

**III.- 4 H.A.KO S.4.1, S.4.2 ETA S.4.3 GUNEETAKO XEHETASUN AZTERKETA.-**

Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 4 Hirigintz Areako S.4.1, S.4.2 eta S.4.3 gune-etako -Elosegi, 4 eta Batzokia- Xehetasun Azterketari 2001eko urriaren hemeretzi Alkate-tzaren Ebazpen bidez eman zitzaion haserako onarpena. Xehetasun Azterketa hau Construcciones Aburuza, S.A.k aurkeztu du, Fernando Carazo Amundarain arkitektoak idatzitakoa da eta Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialeko 2001eko urriaren 1eko bisa-tua darama.

Haserako onarpen honetan zenbait kontsiderazio egiteaz gain behin betiko onarpena eman aurretik zuzenketa bat egitea ere eskatzen zitzaion dokumentuaren aurkezleari.

Xehetasun Azterketa hau jendaurrean hamabost eguneko denboraldian eduki da eta epe horretan bi alegazio idatzi aurkeztu dira.

Lehenengo alegazio idatzia Juana Aierbe Munduatek aurkeztutakoa da eta S.4.3rako aurrakusten den eraikina eta bere etxearen (Uhaitz, 6) artean dauden zuhaitzak mantentzea eskatzen du.

Bigarren alegazio idatzia Uhaitz, 3ko jabekideen administratzailea den Pablo Berme-jok aurkeztutakoa da eta honako hauek eskatzen ditu:

...///...

...///...

- Garajeetarako bidea aldatzea, erreka aldetik izan beharko lukeela adieraziz.
- Uhaitz 3 eta S.4.2 ko etxebizitzaren arteko tartea handitzea.
- Sarasola garajea eta sagardotegiaren artean dagoen espaloia mantentzea.

Bestalde esan behar da haserako onarpenean ezarri zitzaizen egin beharreko zuzenketa egin dela.

Irastortza zinegotziak (EH) esaten du zuhaitz horien inguruko bere kezka azaldu nahiko lukeela eta urbanizazioa egiterakoan gutxienez oraingo itxura mantentzen saiatu beharko litzatekela.

Alkateak erantzuten dio hor alde batetik Batzoki aurrekaldean dauden lizarrak leudekela eta besteak berriz bestaldetik daudenak, eta gaineratzen du bestaldetik daudenak ezingo liratekela mantendu, teknikariek esan dutenez zuhaitz horiek mugitu ezker mantentzea oso zaila delako. Esaten du baita ere horretarako garaia iristen denean guneari lorategizaintzako irtenbide egoki bat ematen saiatu beharko dela. Batzoki aurreko zuhaitzei buruz esaten du urbanizazioa eta eraikuntza egiterakoan, sotoekin eta arazorik ematen ez duten heinean mantendu egingo direla.

Hau honela, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuarekin, honako erabakiak hartzen ditu:

1.- Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 4 Hirigintz Areako S.4.1, S.4.2 eta S.4.3 guneeetako -Elosegi, 4 eta Batzokia- Xehetasun Azterketa jendaurrean egon den bitartean aurkeztutako alegazioei modu honetan erantzutea:

- 1.1 Juana Aierbe Munduatek aurkeztutakoari.- Ez da uste zuhaitzak mantentzea posible izango denik, dena den zehaztasun hori ez da xehetasun azterketa honen egitekoa baizik eta bere egunean idatziko den urbanizazio proiektuarena. Beraz alegazioa desestimatu egiten da.
- 1.2 Pablo Bermejok aurkeztutakoari.- Beraiek eskatutakoaren arabera alegazioa zati batean estimatzea, S.4.2 gunea beraien eraikinetik 2 metro harutzago mugituz, garajeetako sarrera bidea aldatzea, sarrera erreka aldetik izango delarik, alegazioa gainontzean desestimatu. Galtzen diren 2 metro hauek irabazteko S.4.2 eta S.4.3 60 zm. zabalduko dira bai Eki eta bai Mendebaldera ematen duten aldeak, hau da, guztira 1,20 metro.

2.- Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 4 Hirigintz Areako S.4.1, S.4.2 eta S.4.3 guneeetako -Elosegi, 4 eta Batzokia- Xehetasun Azterketa hau behin betikoz onartzea erabakitzen du.

3.- Sustatzaileak onartutako alegazioaren ondoriozko aldaketekin bategindako testua aurkeztu beharko du.

#### IV.- 1 H.A.KO 3 B.U.KO %10 BESTERENGANATZEKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEA.-

Jarraian 1 Hirigintz Areako 3 Burutze Unitatean Lazkaoko Udalak duen % 10eko aprobetxamendua lehiaketa bidez besterenganatzea planteatzen da. %10 honen balioa, udal

...///...



...///...

arkitektuak egindako balorazio txostenaren arabera, hamaika milioi lauhun eta berrogei mila berrehun eta laurogeita bi (11.440.282,-) peseta (68.757,48 €) dira.

Lamy zinegotziak (EA) egon daitezken zerga eta eskrituratze eta gainontzeko gastuak noren kontu izango liratekeen galdetzen du.

Besterenganatzearen zerga eta gastuak eroslearen kontu izango lirateke, baldintza pleguan jasotzen den bezala.

Hau horrela, Osoko Bilkurak, Udalaren jabetzakoa den 1 Hirigintz Areako 3 Burutze Unitateako aprobetxamenduaren % 10ren besterenganaketa lehiaketaz esleitzeko prestatu den baldintza plegua aztertu ondoren, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuarekin, kontratazio espedientea onartzea erabakitzen du.

#### V.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Irastortza zinegotziak (EH) esaten du Belen Gonzalezi Lazkaoko Historiari buruzko liburuaren ale bat bidaltzea eskatzen duela, gaineratzen du Belen Gonzalezi herriko informazioa bidaltzeari buruzko akordioa hartuta dagoela eta hau betetzen den jarraipenik egin ez badute ere berriro ere gogorarazten duela.

Alkateak erantzuten dio Lazkaoko Historiari buruzko liburuaren ale bat Belen Gonzalezi bidaltzeko ez dagoela inolako eragozpenik.

Alkateak Lazkaoko Historia liburua eta 2002 urterako agenda banatzen ditu zinegotzi guztien artean eta Lazkaoko Historiari buruzko liburuaren ale bat gehiago ematen dio Joseba Hernandez zinegotziari Belen Gonzalezentzako.

#### VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta hemeretzi direnean nik, idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

